

## “Emakume konprometituak”

---

*Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, emakumeen eskubideen berdintasun osoa berreskuratzea bultzatzeko. ALE-Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartetik ere emakumeek eraldaketa sozialarekin duten konpromiso irmoa berretsi nahi dugu.*

*Duela mende erdi baino gehiago, Arizmendiarrietak hau zioen: "**Emakumearen posizioa da, gizarte guztietan, garapen mailaren neurri zehatza**", eta hau ere esaten zuen: "**Mundua etengabe eraldatzeko eman zaigu, ez begira egoteko**".*

*Bi aipuen konbinazioak lankidetzarako –ez "borrokarako"– konpromiso partekatua baten parte aktibo izatera garamatza, berdintasun osorantz kota handiagoak lortzeko. Berdintasun osoa bai, baina inklusiboa, beti gizonekin partekatua, transbertsala eta belaunaldi artekoa, eta bai, genero indarkeria mota ororen aurka borrokatuko dugu, kontuan hartuta ez bakarrik emakumearen aurkako indarkeria, baizik eta baita indarkeria bikarioa ere, horren parte gisa.*

*Berdintasun osoa, eraldatzailea eta partekatua, familiaren ingurune hurbilenetik, kooperatibatik, enpresetatik, jarduera sozialetan dugun konpromisotik, ez bakarrik genero berdintasuna aldarrikatzeko, baita desberdintasuna eta zaurgarritasuna gainditzera bideratuta ere. Azken batean, Arizmendiarrietak zioen bezala, esparru guztietatik, "garapen maila eta... gizarte eraldaketa" hobetzeko.*

*Emakumeen enpatia, sentiberatasun emozional eta aktibismorako dituzten gaitasun espezifikoei buruzko konfiantza osoa oinarri hartuta eta ausardiaz ekin behar diegu gaur aurkezten zaizkigun erronkei, betiere etorkizunera begirako "begirada luzearekin". Inork ez gaitu "ahaldundu" behar, gehiegitan esaten eta idazten den bezala. Egiteko gai gara, baina laguntasunez egin nahi dugu, horrela urrunago iritsiko garelako.*

*Arrasateko Esperientzia Kooperatiboak inspiratu dizkigun balio eta printzipioetatik abiatuta, aukera paregabea eman baitigu gizarteko arlo guztietan parte hartzen ikasteko, genero berdintasun betean, "Pertsona bat - Boto bat" aitortza demokratiko gorenaren arautik abiatuta.*

*Parte hartzen badakigu, hamarkadatan egin dugu, eta belaunaldi berriei ere gure konpromisoaren esperientzia transmititzera behartuta gaude.*

*ALE-Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartetik bat egiten dugu duela mende erdi baino gehiago Arizmediarrietak esan zuenarekin: “Emakumearen posizioa da, gizarte guztietan, garapen mailaren neurri zehatza”, eta denon artean lortuko dugu.*

*ALEko bazkide guztien konpromisoa da, baina gaur Itziar Usabiaga eta Gemma Muñoz lankideei eskaintza berezia egin nahi diegu –**Emakume konprometituak**–, Jose Maria Arizmendiarrietaren Legatua aztertu eta katalogatzeko gure lantaldean diharduten aktibista eta langile nekaezinei.*

*“Aurrera, beti aurrera!!!”*

*Lourdes Idoiaga Urkia*

*ALE- Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko Presidenta*